

BEUSKARAREN BERRIPAPER A

HIZKUNTZA POLITIKARAKO IDAZKARITZA NAGUSIA

Udan 10.000 lagun arituko da euskara ikasten

Jende asko da uda iristen denean euskara lantzeko ahalegin berezia egiteko prest dagoena. Helduen euskalduntzeaz eta alfabetatzeaz arduratzen diren euskaltegiek badakite hori eta eskaintza zabala antolatzen saiatzen dira udaro. Aurtengoa ez da salbuespena.

● **Barnetegiak.** Aurrenekoak 70eko hamarkadan antolatu ziren. Harez gero barnetegen eskaintza asko zabaldu da eta antolaketa ere nabarmen hobetu da. Hamabost edo hogeit egunetan zehar, ikasleak giro erabat euskaldunean murgiltzen dira. Irakastorduez gain -bospasei egunean-, jolasak, filmeak, txangoak, jaiak eta beste hainbat ekintza izango dituzte, denak euskaraz. Gehienak ez doaz gehiago ikastera, baizik eta ikasitakoa finkatu eta batipat, mintzapraktika egitera, hauxe baita baliabiderik garrantzitsuen aurrekoa lortzeko.

Barnetegi gehienak 15-20 egunekoak izan ohi dira eta 105 irakastordukoak batazbeste.

Gehienak giro euskalduna duten herri txikietan egiten dira,

BARNETEGIAK NON

Bizkaian	7
Gipuzkoan	18
Lapurdin	1
Nafarroan	6
Nafarroa Beherean	2

Iturria: HABE

uztailean, abuztuan eta baita irailean zehar ere. Batazbeste ikasleak 30.000 eta 40.000pta.ren artean ordaindu beharko ditu, eskola eta mantenua barne. Aurten ia 5.500 irakastordu emango dira udako barnetegietan.

Barnetegietara doazen ikasleak ere aldatuz joan dira urteen joanarekin batera. Urruti geratu dira beste barik euskara ikastera joaten zirenak. Lana bilatzeko euskara tituluren bat behar dutenak ere geroz eta gutxiago dira. Orain institutuetakoz gazteak ari dira nagusitzen, unibertsitatara orduko EGA titulua lortu nahian.

● **Udako ikastaro trinkoak.** Hauxe da euskaltegiek herritik irten barik udarako egiten duten eskaintza. Hogeit eguneko ikastaro trinkoak izaten dira, bost ordukoak, eta helburua barnetegietan bezala, aurrez ikasitakoa ondo finkatzea edo maila bat aurreratzea izan ohi da. Euskaltegi publikoetan ikasleak 6.500 pta. ordaintzen ditu eta pribatuetan 8.500 eta 10.000 pta. artean. Zenbait udalek, gainera, beka ematen dituzte errendimendu ona erakutsi duten ikasleentzat.


Uda honetan 10.000 lagun izan daitezke barnetegietan eta ikastaro trinkoetan euskara ikasten ahaleginduko direnak.

UDA BARNETEGIAK 93

ANTOLATZAILEAK	NOIZ	MAILA
G. Aresti	uzt. abu. ira.	4.etik +
Juan M. Zabala	uzt. abu. ira.	4.etik +
Udaberria	uzt. abu. ira.	4.etik +
Hegoaldea	uzt. abu. ira.	4.etik +
Altza	uzt. abu.	7.etik +
Monpas	uzt. abu.	7.etik +
Ortzadar	uzt. abu.	7.etik +
Urumea-R. Arregi	uzt. abu.	7.etik +
Maizpide	uzt. abu. ira.	guztiak
Uztarri	uzt.	eusk. guztiak
Labayru	uzt.	guztiak
AEK Iparraldea	uzt. abu.	1, 3, 5, 6 & alfa.
AEK Araba	eka. uzt. abu. ira.	3.etik guztiak
AEK Bizk.	eka. uzt. abu. ira.	3.etik guztiak
AEK Gipuzkoa	uzt. abu.	3.etik guztiak
AEK Nafarroa	uzt. abu.	denetik
IKA	uzt. abu.	denetik
Gipuz. Udal Euskalt.	eka. uzt.	4, 5, 6, 7, 8
Bizkai. Udal Euskalt.	eka. uzt.	6.etik +
Ilazki	uzt. abu.	3.etik +
Urrats	uzt. abu.	4, 5, 6, 7
Hitzez	uzt. abu.	4, 5, 6, 7
Bilbo Zaharra	uzt. abu.	4.etik + & EGA
Ulibarri	uzt. abu. ira.	guztiak
Aurten bai	uzt. abu. ira.	guztiak

Iturria: HABE

UDALDIKO MATRIKULAZIOA



Ikerne Oiartzabal, Arabaren bagare

Ikerne Oiartzabal Markinan jaio zen eta gerraostean hazi zen, familia euskaldun batean. Beka

bati esker, Bilbon ikasi zuen batxilergoa eta Santiago de Compostelara joan ahal izan zen unibertsitate ikasketak egitera, Zientzia Kimikoetan lizentziatuz. Euskararekiko kezka eraginda, euskara tituluaren jabe egin zen Bilboko Hizkuntza Eskola Ofizialean.

Irakaskuntzan zenbait urte igaro eta gero, 1973an Arabako Foru Aldundiak sortutako Euskara Zerbitzuko zuzendaritza onartu zuen. Helburua zera zen, herri euskaldunetan euskaraz lan egingo zuten aurreraketa eta OHOk lantaldeak eta irakasle euskaldunak prestatzea. Aurtan,

hain zuzen ere, hogeitun beteko dituzte euskalduntze lan horretan.

Bi aldiz bereizten dituzte hogeitun urte



Ikerne Oiartzabal

hauetan. 1973tik 1984ra Arabako ikastolak sustatu eta sortzeko aldia izan zen. Hasierako Gasteizko 25 umeak eta Aramaioko 30ak, 1984an Eusko Jaurlaritzari transferitzerakoan 8 ikastolatan ziharduten 3.500 ume, 160 irakasle eta hainbat laguntzaile izatera iritsi ziren.

1985etik aurrera Arabako Foru

Aldundiak bere langileak euskalduntzeari ekin dio. Berak dioenez, bidea normaltasun osoz betetzen ari da.

Ez da lan makala, baina etorkizunari itxaropenez begiratzen dio Ikernek.

Justo Garate Beka

Bergarako Udalak Justo Garate Bekaren 1993ko deialdia zabaldu du. Beka hau iaz sortu zen, Argentinako Mendoza hirian bizi den osagile eta humanista bergararraren omenez, giza zientzien ikerketa sustatzeko.

Aurtengo deialdiaren ardatzak hauetxek dira: Historiari soilik zuzendua dago, beka 935.000 pezetakoa izango da eta 11 hilabeteko iraupena izango du, ikerketa lana euskaraz egin eta originala izan beharko da, norbanakoek nahiz lantaldeek jaso ahal izango dute, baina diplomatu edo maila bereko titulua eskatuko da. Eskatzaileek espediente akademikoa, curriculum, lanaren memoria eta NANaren fotokopia aurkeztu beharko dituzte.

Eskabideak eta gainerako agiriak Bergarako Udaletxera bidali behar dira, irailaren 1etik 30era bitartean, biak barne. Berri gehiago: (943) 76 39 42.

"Alberdania"

literatur argitaletxea sortu berri da Irunen. Arduradunak Jorge Gimenez eta Iñaxio Mujika Iraola dira. Batipat euskaraz argitaratzeko asmoa azaldu dute, baina gaztelaraz plazaratzeko aukera baztertu barik. Literaturaren arlo guztiak landu nahi dituzte. Hiru liburu kaleratu dituzte: saio bat gaztelaniaz eta narrazio eta poesia liburu bi euskaraz.

Gasteizko gurasoen

%84ak euskarazko ereduak aukeratu dituzte datorren ikasturtean euren umetxoak haurtzaindegian matrikulatzeko orduan. Udaleko Hezkuntza Sailak aditzera eman duenez, bertan jaso diren haurtzaindegietarako aurrematrikula eskarien artean, % 16ak gaztelara hutsezko ereduak aukeratu du, %64ak eredu elebiduna eta %20ak euskara hutsezkoa.

"eta kitto" aldizkariak eta Onda Cero irratiak

hitzarmen bat sinatu dute Eibarko irratiaren euskarazko saioak sartzen joateko. Elena Laka "eta kitto" elkartearen lehendakariak eta Roberto Morales Onda Ceroko zuzendariak izenpetu zuten ituna. Hasteko, asteazkenetan eta larunbatetan euskarazko saio batzuk -agenda eta elkarrizketak- antenaratuko dituzte Onda Cero.

Euskalduntze ikastaroak Nafarroan.

Nafarroako Gobernuak unibertsitatekoa ez den ikastetxeetako pertsonala euskalduntzeko egitasmoa plazaratu du. Honen arabera, batzuek urtebeteko edo sei hilabeteko ikastaro trinkoak egin ahal izango dituzte eta epe horretan lanean ordezkatuak izan. Beste batzuek berriz, lanean jarraitzen duten bitartean ikasi ahal izango dute euskara.

Akitania-Euskadi-Nafarroa: lankidetza indartzen

Aspalditxo hasi ziren Akitaniako, Euskadiko eta Nafarroako erakundeetako ordezkariak elkarlanerako aukerak aztertzen, Europako Elkartearen eraikuntzak ekarriko zituen aldaketei erantzuteko.

Hori dela eta, 1992an lankidetzarako ituna izenpetu zuten. Honen arabera, Akitania-Euskadi-Nafarroako mugaz gaineko elkartea sortu eta beroi bultzatzeko lankidetzarako fondoak eratzea erabaki zuten; lankidetzaren politikak sustatzea eta Europako Elkarteko beste eskualdeekiko harremanak bultzatzeko konpromezua hartzea; mugen ezabapenak biru eskualdeetan sor litzakeen desoreka ekonomikoei aurre egitea eta erabaki hauek betetzeko ardura



izango duen Batzorde Iraunkorra sortzea eta eratzea.

Lankidetzarako dirua jaso nahi duten egitasmoek ekonomia, finantzak, ingurugiroa, zientzia, teknologia, hezkuntza,

unibertsitatea, kultura, gizartea eta bestelako eremuak landu beharko dituzte. Egitasmoak bi aldeetakoak izan beharko dira, herrialde bakoitzeko lankide bat edo gehiago bilduz.

Maiatzaren 14an Bordelen egindako bileran Erakunde arteko

Batzorde Iraunkorrak 1993. urteari dagokion hainbat egitasmo erabaki zuten. Denetara sei egitasmo onartu ziren. Horietako hiru kultura mundukoak: Zuberoako kantuak, Haur Kantu Txapelketa eta EUSENA. Denetara 12 milioi pta. inguru jaso zituzten Lankidetzarako Fondoetatik.

Euskaltzaindiak bost ohorezko euskaltzain berri izendatu ditu azken bileran.

Bernardo Estornes, 86, izabatarra, Auñamendi argitaletxea eta *Batasuna* aldizkaria sortu zituen. 92an Manuel Lekuona Saria irabazi zuen.

Jean B. Etcheberry, 90, donostiritarra, hainbat liburu eta artikuluren egilea.

Carlos Santamaria, 84, donostiarra, matematikaria, ikastoletako sortzaileetarikoa. EHUko Doctor Honoris Causa.

Martin Ugalde, 72 andoaindarra, idazle, kazetari eta *Euskaldunon Egunkari*ko Administrazio Kontseiluko lehendakaria.

Augustin Zubikarai, 79, ondarrutarra, *Eguna* lehen euskarazko egunkarioko sortzaileetarikoa bat eta erredaktore buru izana. Liburu eta artikulua askoren egilea.

Administrazioa euskaraz

Itxuraz eta edukiz berriztuta plazaratu da Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak, IVAPek, argitaratzen duen aldizkaria. Administrazioa hizkuntzari buruzko idazlanen gain, administrazioarekin orokorrean zerikusirik duten gaiak eta berriak dakartza *Administrazioa euskaraz* berriztuak.



EUSKARAREN BERRIPAPERA zure etxean doan jaso nahi baduzu edo ezagunen bati bidaltzea nahi, idatzi helbide honetara:

Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusia
Wellingtongo Dukea, 2
01011 Vitoria-Gasteiz
(Araba)

Euskaraz Gazteleraz

Izen-deiturak:.....

Helbidea:.....

Herria:.....

Kodea:.....

Lurraldea:.....

Tel.:

Galdezka

Eskolako euskara maila

G. Zer esango zenuke ikasleek eskolan lortutako euskara mailari buruz?

E. Hiru ondorio orokor s aipatu behar dira aztergai honi buruz egindako ikerlanetako emaitzen arabera:

1. Gela barruan zenbat eta beteagoa izan hizkuntza eredu, orduan eta hobeak euskarazko emaitzak. D eredu ikasleek lortzen dituzte notarik onenak euskaraz, ondoren B ereduak doaz eta, azkenik, Akoak.

2. Ama hizkuntzak zeresan handia du ikasleek lortzen duten euskara-mailarekin.

3. Faktore hauek ere badute loturarik euskarako emaitzetan:

- euskararekiko jarrera eta motibazioa.
- ikaslearen maila sozioekonomikoa.
- eskola sarea (euskarazko notak hobeak dira ikastoletan pribatuan baino, eta pribatuan publikoan baino).
- ikaslearen intelektu maila (zenbat eta altuagoa orduan eta euskarako nota hobeak).
- metodologia (zenbat eta biziagoa orduan eta euskarako nota hobeak).

M. Karmen Garmendia.

Hizkuntza Politikarako idazkari nagusia

Hizkuntza aztergai XII. Udako Ikastaroetan

Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusiak (HPIN) Hizkuntzalaritzari buruzko bi ikastaro antolatu ditu Euskal Herriko Unibertsitatearekin (EHU) batera. XII. Uda Ikastaroen barruan emango dira, Donostiako Miramar jauregian, uztailean.

• **Lehen ikastaroa,** "*Hizkuntzen aldeko mugimendu sozialak*", uztailearen 19tik 21 era bitartean izango da eta Joseba Intxaustik zuzenduko du. Joseba Intxaustik berak, Isidor Marik, Lise Harouk, Kike Amunarrizek, Iñaki Arrutik, Paulo Agirrebalzategik eta William F. Mackeyk Euskal Herriko, Kataluniako eta Quebecoko kasuen egoera aztertuko dute hiru egunetan.

Bukatzeko mahainguru bat: "*Hizkuntza politika eta mugimendu sozialen erlazioa*".

• **Bigarren ikastaroa,** "*Hizkuntza eta talde nortasuna*", uztailearen 22tik 24ra bitartean izango da eta Joxe Azurmendik zuzenduko du. Alde batetik, Paulo Iztuetak, Iñaki Larrañagak, Mari Jose Azurmendik eta Benjamin Tejerinak oinarritzko kontzeptuen azalpena egingo dute. Bestetik, talde nortasuna aztertuko da soziologiaren ikuspegitik: Richard Y. Bourhisek eta Peter H. Neldek hiruna hitzaldi emango dituzte. Bukatzeko, hizkuntza gutxiagotuen etorkizuna Europako egitasmoaren barruan izango da aztergai.

Ikastaroak 9.00etan hasiko dira eta 14.00etan bukatuko. Matrikula egiteko epea uztailearen 19ra arte izango da zabalik. 5.250 pta. ikastaro bakoitza. Dirulaguntzak izango dira. Tfnoa.: (943) 21 95 96.

✓ Kontutan hartzeko

• **"Euskaldünak iraültzan pastorala"** uztailearen 25ean antzetzuko da Gotaine-Irabarnen. Jean Louis Davant euskaltzain zuberotarrak ("Abadia Ürrüstoi" pastoralaren egilea) idatzi du. Frantziako Iraültzan zehar euskaldunek bizi izandako gorabeherak kontatzen ditu. Gotaine-Irabarnek egin duen boskarren pastorala izango da hau. Beroi izango da herri

zuberotar honek aurten eratuko duen kultur ekintzarik garrantzitsuena.

• **Ikasketa okzitanoak.** Gasteiz *Ikasketa Okzitanoen Nazioarteko Elkartearen IV. Nazioarteko Biltzarren* egoitza izango da, abenduaren 22tik 28ra bitartean. Antolatzaile: EHU eta AIEO. Infor.: Marqués de Urkixo z/g, 01006, Gasteiz.

EUSKO JAURLARITZA

LEHENDAKARITZAREN IDAZKARITZA
HIZKUNTZA POLITIKARAKO IDAZKARITZA NAGUSIA



GOBIERNO VASCO

SECRETARIA DE LA PRESIDENCIA
SECRETARIA GENERAL DE POLÍTICA LINGÜÍSTICA